



Usurbilgo Udala

2025/09/30

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2025EKO IRAILAREN 30EAN  
GOIZEKO 9:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

**BERTARATUAK:**

**Alkatea:** Agurtzane Solaberrieta Mesa.

**Zinegotziak:** Iratxe Begiristain Otegi eta Ainhoa Arrozpide Landa.

**Idazkaria:** Xabin Juaristi Arrieta.

Ez dira bertaratu: Joxe Mari Lizaso Azkonobieta eta Xabat Beloki Segurola.

**1.- 2025EKO IRAILAREN 9KO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.**

Batzarkideek 2025eko irailaren 9ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

**2.- 2025EKO ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZA ONARTZEA (2025FOPE0001).**

**Ikusirik**

2024ko abenduaren 24eko datarekin Udalbatzak 2025eko Lanpostuen Zerrenda eta Plantilla Organikoa onartu zituen. Gerora, 2025eko urtarrilaren 30ean bilkuran aldaketak onartu ziren.

**Kontuan harturik**

Urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bategineko 70. artikulua eta Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 52. artikulua dioena.

Estatuko 2023. urteko aurrekontu orokorreari buruzko abenduaren 23ko 31/2022 legearen 20. artikulua.

2025eko irailaren 18ko Pertsonal eta Antolakuntza teknikariaren txostena.

Alkatetzaren 2023/1089 zenbakidun dekretuan Enplegu Publikoaren Eskaintza onartzeko ezarritako eskuduntzen egikaritzan, Tokiko Gobernu Batzarrari eginiko lagapena.

Aurreko guztia kontuan hartuta, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

**ERABAKIA**

**LEHENENGOA:** 2025eko Enplegu Publikoko Eskaintza onartzea:



Usurbilgo Udala

2025/09/30

Sailkapen taldea	Eskala	Azpieskala	Izena	Hizkuntza eskakizuna	Kopurua	Txanda	Lanaldia
C1	AB	ZB	Ofizialordea/Udaltzainburua	C1	1	Barne promozioa	% 100
C1	AB	ZB	Udaltzaina	C1	1	Irekia	%100

**BIGARRENA:** Enplegu Publikoaren Eskaintza Udaleko egoitza elektronikoan, iragarkien taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da denek ezagutu dezaten eta, interesdunek nahi izanez gero, errekurtsoak jar ditzaten. Haren laburpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

**Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du, goizeko 09:45k direnean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**